

Arabak ere 'bai' esan zien 35 ordueri

Industrian greba ia erabatekoa izan zen sindikatuentzat, %53koa soilik enpresarien arabera

Asier Pz. de Karkamo/Gasteiz

Arrakasta hitzak laburbildu zuen atzoko greba eguna Araban. Ia erabatekoa industria, komertzio, eta garraioan, oso handia irakaskuntza eta osasun arloan eta nabarmena administrazioan, halakoa izan zen, sindikatuen arabera. Eskualdeka Araialdeak erabat itxi zuen, eta Gasteiz, Agurain eta Langraizen isla haundia izan zuen. Gainontzeko eskualdetan gutxiago.

SINDIKATUEK 35 orduko lan astea eta gizarte soldataren aldeko aldarrikapena kalera eraman zuten raban. Industrialdeetan eta Gasteiz eta herri handienetako kaleetan normaltasun eza nagusitu zen. Ertzaintzak hamarnaka ajente kaleratu zituen, baina eskas izan ziren piketetan bildu zen jendetzarako.

Istiluak han-hemenka jazo ziren, nahiz eta oso larriak izan ez. Betoñoko industrialdean bi zauritu egon ziren, ertzainen karga baten ostean. Hango eta Ehariko enpresetan greba ia orokorra izan zen. Laminaciones Arregi, Graficas Santamaria, Sidenor eta Mercedes Benzen ez zuten atzo lanik egin.

El Corte Ingles inguruan ere kargatu zuen Ertzaintzak. Baina arazo handirik ez zen gertatu, ordurako denda gehienak itxita baitziren.

Eragin handia administrazioan

Erakunde publikoetan isla handia izan zuen lanuzteak. Gasteizko ostiraleroko udalbatza atzeratu egin zen, PSE, UA, HB eta IUko zinegotziek grebarekin bat egin zutelako. Udaleko eta Foru Aldundiko langileen erdiak baino gehiagok greba egin zuten, eta Jaurilaritzan hamar langiletik hiruk ez zuten lanik egin.

Osasun Sailaren arabera Osakidetzako ospitaletan greba jarraitu zutenak %14a izan ziren. Sindikatuen esanetan, gutxieneko zerbitzuak soilik bete ziren.

Garraioetan gutxieneko zerbitzuak bete ez zirelako kezu zen Lan Saila. Ez zen autobusik irten Gasteiztik Donostiara, ezta Bilbora ere.



JOSEBA OLALDE

Manifestazio jendetsua Gasteizen. 35 orduko lan astearen eta gizarte soldataren aldeko greba deialdiarekin batera, manifestazioa egin zuten mobilizazioak deitu zituzten sindikatuak. Jende ugari bildu zuten Gasteizko kaleetan barna.



DAVID AGUILAR / EFE

Ertzainak lanean. Piketeen eta grebari muzin eginez lana egin nahi zutenen arteko liskarren beldur, Ertzaintzak kalera atera zituen zenbait ajente. Istilu larrienak Betoñoko industrialdean gertatu ziren, eta Ertzaintzaren kargan bi grebalari zauritu ziren.

UGTko bi langile zaurituak Betoñon, ertzainen kargan

UGT sindikatuko delegatu bat besoa hautsita eta beste afiliatu bat sorbalda aterata gertatu ziren goizeko lehen orduetan Betoñoko industrialdean, Ertzaintzak pikete baten kontra kargatu eta ge-

ro. Goizaldeko bostetik aurrera grebalari eta polizien arteko istiluak jazo ziren bertan, baina nabarmenenak zortzirak aldera izan ziren, Alas tailerren parean. Ertzainek hamarnaka lagunek osa-

tu informazio pikete baten aurka kargatu zuten, porrak eta gomazko pilotak erabili.

Ertzainen kargan Kemen lantegiko UGTko ordezkari gazte bati besoa hautsi zioten.

Sindikatu bereko beste afiliatu batek ere sendadurak behar izan zituen, sorbalda luxazio bat jasan zuen-eta.

Leku hartatik oso gertu, scalextric deritzon gunean, istiluak

errepikatu ziren. Ertzaintzak atxiloteta bat egin zuen bertan, piketeko kide batek kotxe baten aurka errodamentuak bota zituelako. Detenitua LAB sindikatuko ordezkaria da.

Grebaren jarraipena

• Greba nagusi izan zen atzo 50 langiletik gorako enpresa hauetan, sindikatuak emandako datuen arabera.

1. Aceria de Alava (Amurrio)
2. Arabako Foru Aldundia
3. Banco de Vitoria (Gasteiz)
4. BBV (Gasteiz)
5. Cegasa (Gasteiz)
6. Comercial Ufesa (Gasteiz)
7. Condesa (Urbina)
8. Cortabarria (Amurrio)
9. Daewoo (Gasteiz)
10. El Periodico de Alava
11. Eusko Irratia (Gasteiz)
12. Eusko Jaurilaritza (Gasteiz)
13. Explosivos Alaveses (Gasteiz)
14. Ferrocarriles y Equip. (Amurrio)
15. Fibertecnic (Gasteiz)
16. Forondako Aireportua
17. Fournier (Gasteiz)
18. Fuchs Lubricantes (Gasteiz)
19. Fundiciones Ocariz (Agurain)
20. Gamesa Moasa (Legutio)
21. Gamesa Aeronaut. (Arkaia)
22. Gasteizko Udala
23. Hofesa (Gasteiz)
24. Iberdrola (Gasteiz)
25. Inauxa (Amurrio)
26. Intecsa (Gasteiz)
27. Jez Sistemas Ferro. (Laudio)
28. Kemen Comercial (Gasteiz)
29. Kimberly Clark (Arzeniega)
30. Laminac. Arregui (Legutio)
31. Maderas de Llodio (Laudio)
32. Mercedes Berz (Gasteiz)
33. Metal C. Mondragon (Gasteiz)
34. Michelin (Gasteiz)
35. Motot. Elec. Latierro (Gasteiz)
36. Ospitale Psikiatrikoa
37. Pferd-Ruggeberg (Gasteiz)
38. Prosegur
39. Radio Vitoria
40. Saft Iberica (Gasteiz)
41. Sidenor (gasteiz)
42. Tall. Betoño (Gasteiz)
43. Tubacex (Laudio eta Amurrio)
44. Tuboplast Hispania (Gasteiz)
45. Tubos Reunidos (Amurrio)
46. Vinilika Industrial (Gasteiz)
47. Vital Kutxa (Gasteiz)
48. Widia Valenite (Gasteiz)
49. Zayer (Gasteiz)